

BALOREZKO PROPOSAMENA

Gure proiektua maila sozialean kokatzen den enpresa bat da, drogazaleekin lan egiten duena eta haien bizitza hobetzea helburu duena. Taldea osatzen duten pertsonen izaera solidarioa da, norbaiti zeozer ematea, materiala zein emozionala, ezer ez bueltatzearen truke. Guztiok noizbaiten laguntza jaso dugu, eta garrantzi handikoa iruditzen zaigu prest egotea edonori gure laguntza eskaintzeko. Hori dela eta, proiektu hau martxan jarri egin dugu, zeozer egitekotan, erabilgarria iruditu zitzagulako laguntza behar duten pertsonekin lan egitea. Normalean, gizarteak baztertzen ditu pertsonak hauek eta guztiok zeozer probetxugarria egiteko gai garela pentsatzen dugu.

Alde batetik, konpontzen dugun arazoa da droga mundu horrekin erlazioa duten pertsonak laguntzea lan baten bitartez, gure kasuan, okindegi batean lan egingo dute. Gure berezitasuna hurrengoa da: ez gara edozein okindegia, zeren eta gizarteari zerbitzu bat eskaini ez ezik, enplegua ere sortzen ari gara behar dutenentzat. Horrela gure langileak probetxugarri sentituko dira, eta ez eragozpen bat, askok pentsatzen duten bezala. Hau guztia kontuan hartuta, agian bezeroak erakarriko ditugu eta ordaintzeko prest egongo lirateke.


Lehiakideen aldetik, bereizten gaituen balioa da kuantitatiboa, prezio bereziak izango ditugu hasiera batean. Horretaz aparte, gutxika-gutxika joango gara osagarriak sartzten nolabait berrikuntzak egiteko. Gainera, gure diseinua berezia izango da, pertsonalizatua hain zuzen ere.

Ikusi dezakegun bezala, estatistika ugari dago gai honen inguruan, eta aurkeztea funtsezkoa da ikusteko zer nolako inpaktua duten drogak maila internazionalan. *Infobaek* dioen bezala, munduan urtero 190.900 pertsona hiltzen dira drogak kontsumitzeagatik. Ipar-Amerika heriotza proportzio gehien duena da, hortik aurrera doaz, Ozeania, Afrika, Europako ekialdea, mendebaldea eta zentrala, Asia eta Amerika Latina. Munduko batz-bestekoa 39,6 milioiko biztanleak dira.


Estatu Batua, bentaja handiarekin, termino absolutuetan drogak direla eta, heriotza gehien duen herrialdea da, 52.404 urtero.

Kasu gehienetan, heriotzara eramaten duten substantziak opiazeoa, gehienbat, heroina eta fentaniloa.

Muertes relacionadas con el consumo de drogas por continente 



Los países con más muertes por consumo de drogas (cada milló de habitantes)







Fuente: Infobae en base a datos del Informe Mundial sobre Drogas 2017 de la ONU

*El último dato disponible es de 2013

**El último dato disponible es de 2010

Estimaciones del consumo de drogas en el último año entre adultos jóvenes (15-34 años) en España





Nota: Estimación de la prevalencia del consumo de drogas en el último año en 2015.

Grafika guzti hauek azertu eta gero, orain lehen baino kontzientziatuagoa gaude, datu enpirikoak baitugu. Beraz, honekin konturatzen gara drogen kontra borrokatu behar dugula, eta irtenbideen bila jo behar dugula honekin behingoz amaitzeko. Hau egiten 5 gauza lortzen ditugu: alde batetik, abantail emozionalak ematen ditu, kausa batengatik borrokatzen duzu, txikiei irakasten diezu, gizarteari bueltaren bat ematen diozu eta zure denbora eskaintzen duzu.

Azkenik, oinarrizko 6 aholku ditugu gure enpresak drogazaleei laguntzeko eta guztiek kontuan hartu behar dutela laguntzekotan:

- 1.- Pazientzia izatea.
- 2.- Informazio ugari izatea gai honen inguruan.
- 3.- Balore negatibozko juizioak sahiestea.
- 4.- Arazoa okerrera egiten diren jarrerak sahiestea.
- 5.- Psikologo baten laguntzan sostengatzea.
- 6.- Egoera hori bizi diren pertsonekin hitz egitea laguntza aurkitzeko.